

“—Zentroetako jaunok, ertzetako jaunok, herriaren gehiengoak sufritzen ari da! Zuek "errepublika" esan edo "monarkia" esan, herriak sufritu egiten du. Begi bistakoa da.

—Herria goseak dago, herria hotzak dago. Ezeriak krimenera eta biziora du bultzatzen, sexuaren arau. Urrikal zaitezte semeak presondegiak eta alabak prostibuluak kentzen dizkion herriaz. Preso gehiegi daukazue, prostituta gehiegi daukazue. Zer frogatzen dute bi zauriok? Gorputz sozialak baduela bizioren bat odolean.

Horra non bilduak zaudeten eriaren oheburuan; ardura zaitezte eritasunaz.

—Eritasun hau, gaizki artatzen duzue. Azter ezazue hobeki. Egiten dituzuen legeak, egiten dituzuenetan, ez dira eztiagarriak eta txostenak besterik. Zuen kodeen erdia errutina da, beste erdia enpirismoa. Burdina gorituaren marka, zauria gaiztotzen zuen kauterizazioa zen; zentzubako zigorra, krimena kriminalaren gainean bizitza osorako zigilatu eta iltzatzen duena, bi lagun, bi adiskide, biak bat eginik! Ateratzen duen ia odol gaizto guztia, ez gaiztoagoa bihurtu gabe, berriro barneratzen uzten duen botika absurdua da presondegia. Hiltzeko zigorra basakeriazko anputazioa da.

—Beraz, burdina goritua, presondegia, hiltzeko zigorra, elkarri eusten dioten hiru gauza dira. Burdina goritua kendu duzue, logikoak baldin bazarete, ken ezazue gainerakoa. Burdina goritua, grilua eta labana silogismo baten hiru zatiak dira. Burdina goritua bahitu duzue, griluak eta labanak ez daukate zentzurik. Farinace jauna izugarria zen; baina ez zen absurdua.

—Desmonta ezazue krimenen eta zigorren mailadi herren zahar hori, eta berrizta ezazue ostera. Berrizta ezazue zuen zigorreria, berrizta itzazue zuen kodeak, berrizta itzazue zuen presondegiak, berrizta itzazue zuen epaileak. Jar itzazue legeak ohituren mailan.

—Jaunok, buru gehiegi mozten dira urtero Frantzian. Ekonomiak egiten ari zaretenez, egin itzazue horretan ere. Kenketa ahotan darabiltzuenez, ken ezazue borreroa. Zuen laurogei borreroen soldatarekin, seiehun eskolako maisu ordainduko zenituzkete.

—Har ezazue gogoan herriaren gehiengoak. Eskolak umeentzat, atelierrak gizonentzat. Ba al dakizue Europako nazioetan Frantzia dela irakurtzen dakien jende gutiena duena? Zera! Suitzak badaki irakurtzen, Belgikak badaki irakurtzen, Danimarkak badaki irakurtzen, Greziak badaki irakurtzen, Irlandak badaki irakurtzen, eta Frantziak ez daki! Lotsagarria da.

“Gosea, prostitutaren behakoa da,
Lapuraren makila ferratua, bidean
Ogi bat ebasten duen ume zurbilaren eskua,
Ahantzia dagoen txiroaren sukarra, hilobiko
ilunpean
Naufragatu duen etzangiaren intziria.
Jauna! Bada hazirik, eta, bere soro ikaratueta
Lurra brokatua da landarez eta fruituz eta gariz,
Zuhaitza ahitu deneko, ildo da hasten;
Eta guztiak oro, Jauna, zure urrikian bizi
direlarik,
Euliak intxusaren hostoa ezagutzen duelarik,
Istilak txoriñoari edaten ematen diolarik,
Gorpuak putreak elikatzen dituelarik,
Naturak, bere oihan sakonenetan, txakala,
Basakatua eta herensugea elikatzen dituelarik,
Gizona hil egiten da! – O, gosea krimen
publikoa da;
Gure ilunpetik sortzen den hiltzaile aseezina
dugu!”

1854ko otsailaren 3an bukatutako “Mendeetako Legenda” obraren poema ezagunenetako bati lotua. Dena dela, “Les pauvres gents” (Jende pobrea) pieza hau otsailaren 4ko eskuizkribuan du data. Hugok gezurrezko data eman zion “Kontenplazioak” lanean: 1840ko apirila.



1832

EZERIA

Claude Gueux, 1864ko uztailean Pariseko Aldizkarian argitaratu zen politikarien aurka gogor eginez, Dunkerkeko merkatari batek, liburu hartan “ikasgai garrantzitsua” zegoelakoan, bere gastuen pean Frantzian zeuden diputatu adina liburu argitaratzea eta espreski bakoitzari testuaren ale bana bidaltzea eskatu zuen.